

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramateko, taldekide bakoitzaren **abileziak** hartuko ditugu kontuan. Bakoitzak eginkizun bat edukiko du, hala ere, taldekide batek arazorik izango balu, kideei laguntza eskatzeko aukera izango luke.

Gure zerbitzuaren egoitzak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako EHUko unibertsitateetan egongo direnez, kanpus bakoitza gutako batek kudeatuko du eta langileak motibatzeaz arduratuko da, baita gure hauekin **harreman ona** bermatzeaz ere.

Libe Donostian biziko da bertan ekonomia ikasketak egingo dituelako eta bertan etxea duelako, eta beraz, proiektuaren kontuak eramateaz arduratuko da. **Nerea** Gasteizen bizi eta bera ikastoletan egingo ditugun hitzaldiak prestatzeaz arduratuko da. **Miriam** eta **Naiara**, ordea, Bilbo inguruan biziko dira bertan ariko direlako ikasten, alegia. Miriamek publizitatea ikasiko duenez marketing plana eta gure webgunea sortuko ditu eta kontuan izanda sormen handia duela, publizitateaz ere arduratuko da, hala nola, folletoak berak diseinatuko ditu. Bestalde, Naiarak harreman publikoak ikasiko ditu, horregatik bera arduratuko da diru-laguntzak lortzeaz eta beste entitateekin harremanetan jartzeaz. Dena ondo doala kontrolatzeko, gutako bakoitza asteburu gauetan lanean arituko da. Bakoitza bizi den hiriburuko EHUko unibertsitatean arituko da lanean hainbat langileekin batera, hala haien eredu izango gara eta ordena mantendu ahal izango dugu.



Gure zerbitzuak arrakasta izan dezan, gure langileak psikologikoki osasuntsu egon behar dira, lana zaila baita. Horregatik langileak aukeratzeko garaian, gertukoak ditugun bi **psikologo**en laguntzarekin test psikoteknikoak egingo ditugu eta baita langileak aukeratu ere bai.

Hasiera batean hauek izango lirateke bakoitzaren **eginkizunak**, baina denbora aurrera joan ahala **aldatu daitezke** bakoitzaren lan kantitatearen arabera. Gainera, langileen lana eta zerbitzua ondo doala goraiatzeko langileak afarietara gonbidatuko ditugu, langileen eta gure artean harreman on eta estu bat izatea nahi dugulako, eta zerbitzuaren arrakastaren estadistikak erakutsiko dizkiegu lanerako gogoz jarraitzeko helburuarekin.

Hala ere, hau **hasierako plangintza** besterik ez da, norbait lanez gainezka egongo balitz, beste kide batek lagunduko lioke; ez diogu inoiz talde bezala jokatzeari utziko. Gainera, taldearen beste eginkizunetako bat langileen ordutegia antolatzea izango da, baina danon artean egitea komenigarria da, hots, gure eta langileen artean.

